



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2015/16 Denboraldia

12. ZK.DUN ZIRKULARRA

ESPANIAKO FUTBOLEKO ERREAL FEDERAZIOAREN KOPA FASE AUTONOMIKOA

Euskadiko Futbol Federakundearen esku utzi dituzte RFEF Koparen lurralde mailako fasea antolatzeko lanak, hori oinarri gisa hartuta eta, parte hartuko duten taldeen irizpideen arabera, aipatutako lehiaketarako ondorengo arauak ezarri dira.

1. Talde parte hartzaileak

Amorebieta S.D., Aurrera de Vitoria C.D.; Balmaseda F.C., Berio F.T., Deportivo Alavés "B", Zalla U.C. y Zamudio S.D.

2. Lehiaketa sistema

- Final-laurdenak (irailak 9 eta 23)

Lehenengo eta behin zozkatu behar da zein den jokatzetik salbuetsi geratzen del taldea, zazpi taldeek eman bait dute izena. Final-zortzirenetako sei taldeek lehiatuko dute, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera bolekin ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Finalaurrekoak (irailak 30 eta urriak 7)

Final-laurdenetako hiru garaileek hartuko dute parte gehi salbuetsik atera zen kluba, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera bolekin ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

Finala (Urriak 14 eta 21)

Finalaurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, joko-eremuen hurrenkera zozketan bolekin ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3. Jardunaldiak eta partiden ordutegiak

Talde antolatzaileek ezarriko dute partida hasteko ordua aurreko egunetan, ordutegi horrek iluntzeko 19.00 eta 20.00ak artekoa izan beharko du, baina talderen batek ordutegi hori aldatu nahiko balu, aurkako taldearen onespena izan beharko luke eta ados dagoela idatziz jakinarazi beharko du.

Ordutegi hori, partida jokatu den zelaiaz gain, Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi beharko zaio idatziz partida jokatu baino zazpi egun lehenago web orrian, posta elektronikoz edo fax 944732221. Horrez gain aurkako taldeari ere jakinarazi beharko dio.

4. Arbitrajeak

Hirugarren Mailako arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

5. Jokalarien zelairakora

Eskumeneko edo menpeko taldeen jokalarien zelairakoaren inguru esan behar gehienez zortzi baimentzen direla.

6. Diziplinazko Araudia

Lehiaketa hau RFEFren Araudiak zuzenduko du eta jasoera guztiak Hirugarren Mailako IV. Taldeko Epaille Bakarrak erabakiko du.

Txapelketa horri dagozkion eta gerta daitezkeen zigorrak konpartimendu estankoa osatuko dute eta ezingo dituzte beste txapelketa batzuetako zigorrak lehiaketa honetan bete ez eta alderantziz ere; zigor guztiak (arbitroari egindako erasoak ezan ezik) Txapelketa horretan bete beharko dira.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Saria

Txapeldunak RFEFk emandako 3.005,06€ko sariari lehiaketako arbitraje gastu guztiak kentzetik eratorritako zenbatekoa eskuratuko du.

Jakinaraz dadin eta behar denerako jakinarazten da.

Bilbon, 2015eko irailak 4ean

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General